




2019
2021

LHko 4. maila eta
DBHko 2. maila

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

TXOSTENA



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Egilea:

**Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
(ISEI-IVEI)**

2021eko abendua

AURKIBIDEA

1.	2021eko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA.....	5
1.1.	Zer ebaluatu da 2019ko Ebaluazio Diagnostikoan?.....	7
1.2.	Zer ebaluatu da 2021eko Ebaluazio Diagnostikoan?.....	8
2.	Zer populazio ebaluatu da?	9
3.	EMAITZA OROKORREN ETA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERAKO BILAKAERA	10
3.1.	Matematikarako konpetentzia.....	10
3.2.	Zientziarako konpetentzia.....	12
3.3.	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.....	13
3.4.	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.....	14
3.5.	Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	15
3.6.	Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia	17
4.	EMAITZEN BILAKAERA, ZENBAIT ALDAGAIEN ARABERA.....	19
4.1.	Emaitzen bilakaera, ikasleen adin-egokitasun egoeraren arabera.....	19
4.2.	Emaitzen bilakaera ikasleen sexuaren arabera	20
4.3.	COVID efektuaren eragina	23
5.	IRUDIEN ERRREFERENTZIAK	25

1. 2021eko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Ebaluazio diagnostikoa (ED) **oinarrizko kompetentziak** neurtzen dituen azterketa da. Oinarrizko kompetentziak hartu ohi dira edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkoak eta onak direnak; beharrezko kompetentzia horiek "gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko banako guztien beharrezko ezagutzen, trebezien eta jarrerren multzo" gisa ulertzeko adostasun komuna dago. Ebaluazio hori lehen aldiz 2008-09 ikasturtean egin zen, eta orain arte guztira EDren zortzi edizio egin dira. 2013tik, proba guztiak ordenagailuz egiten dira.

Oinarrizko kompetentzietako errendimendu probez gain, ikastetxeetako ikasleek eta zuzendaritzek testuinguru galdera-sorta ere bete zuten. Horrekin, hezkuntza-errendimendu hobea edo okerragoa izateari lotutako aldagaiak eta faktoreak identifikatu ahal izan dira. Gainera, ED21ean, irakasleek lehen aldiz bi galdera-sorta mota bete dituzte: bat orokorra eta bestea euskararekin lotutakoa.



ED19 2019ko maiatzaren 6tik eta 31ra bitarte egin zen bi etapetan.



ED21 data hauetan egin zen:

DBHko 2. maila: 2021eko martxoaren 1etik 12ra.
LHko 4. maila: 2021eko martxoaren 15etik 26ra.

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EZAUGARRIAK

ED 2009 - ED 2019

2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019 urteetan egindako Ebaluazio Diagnostikoek ezaugarri hauek dituzte:

- **Erroldaren arabera**, funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan eskolatutako Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikastetxe guztietako gela guztietako ikasle guztiek hartu zuten parte.
- **Kanpoko**. Ikasleen proben aplikazio-lanak ikastetxetik kanpoko langileek egin zituzten, horretarako kontratatutako enpresa baten bitartez, eta haien kalitate-kontrolaren ardura Hezkuntzako Ikuskaritzarena eta ISEI-IVEIrena izan zen.
- **Estandarizatua**, ikasle guztiak ebaluatu ziren protokolo eta tresna komunaren arabera.
- **Inklusiboa**, ebaluazioan ebaluatutako mailetan eskolatutako ikasle guztiek hartu zuten parte eta horretarako, ahal den neurrian, proben formatua egokitzeko esfortzua egin zen.
- Ikastetxeentzat **prestakuntzarako eta orientazio gisa** balio du eta familientzat eta hezkuntza-sistamarako informazioa eskaintzen du.

ED 2021




ED21 COVID-19ak sortutako pandemia-egoeran egin da. Ondorioz, Ebaluazio Diagnostikoaren edizio honek aurreko edizioetan izan ez diren ezaugarri bereziak izan ditu:

- **COVID-19 protokoloak eta kontingentzia-planak**: ED21 egiteko, ikastetxeetako protokoloak nahiz ISEI-IVEIk egindakoak errespetatu dira. Uneoro bermatu da indarrean diren osasun-neurriak bete direla.
- **Ikastetxeek Ebaluazio Diagnostikoan parte-hartze boluntarioa izan dute**: pandemiak eragindako ezohiko egoera eta ikastetxeetako lanaren gainkarga zela eta, proposatu zen ikastetxe bakoitzak bere borondatez erabakiko zuela ED21ean parte hartzea. Hori dela eta, ED21 ez da erroldaren arabera izan; hala nahi zuten ikastetxeek soilik hartu dute parte.
- **Proben aplikaziorako ardura**: ikastetxetik kanpoko langileak, kasu honetan aplikazioaz arduratuko zen enpresako langileak, sartzea saihesteko, Ebaluazio Diagnostikoaren probak ikastetxeetako irakasleek aplikatuko zituztela erabaki zen.



I.1. Zer ebaluatu da 2019ko Ebaluazio Diagnostikoan?


KONPETENTZIAK



- Euskarazko, Gaztelaniazko eta Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- Matematikarako kompetentzia.
- Zientziarako kompetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.

Gainera, Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko idazmena ere ebaluatu da.

GALDERA-SORTAK



- Ikaslearen galdera-sorta.
- Ikastetxearen galdera-sorta..

APLIKAZIOAREN DENBORALIZAZIOA ETA ANTOLAKETA					
Aplikazioko lehen eguna			Aplikazioko bigarren eguna		
Kompetentziak	Iraupena		Kompetentziak	Iraupena	
	LHko 4. maila	DBHko 2. maila		LHko 4. maila	DBHko 2. maila
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	45'	55'	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	45'	55'
Atsedeen laburra	5'		Atsedeen laburra	5'	
Matematikarako kompetentzia	45'	55'	Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	45'	55'
Atsedeen luzea edo jolas-ordua	20'		Zientziarako kompetentzia		
Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	40'	45'	Atsedeen luzea edo jolas-ordua	20'	
Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko idazmena			Galdera-sorta		
Guztira (atsedenak eta aurkezpenak barne)	2h 55'	3h 25'	Guztira (atsedenak eta aurkezpenak barne)	2h 50'	3h 5'

I.2. Zer ebaluatu da 2021eko Ebaluazio Diagnostikoan?

KONPETENTZIAK



- Euskarazko, Gaztelaniazko eta Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- Matematikarako kompetentzia.
- Zientziarako kompetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.

Gainera, Euskarazko eta gaztelaniazko idazmena ere ebaluatu da DBHko 2. mailan.

GALDERA-SORTAK



- Ikaslearen galdera-sorta.
- Euskararen inguruko irakasleen galdera-sorta.
- Irakasleen galdera-sorta orokorra.
- Ikastetxearen galdera-sorta.

APLIKAZIOAREN DENBORALIZAZIOA ETA ANTOLAKETA

Aplikazioko lehen eguna			Aplikazioko bigarren eguna		
Konpetentziak	Iraupena		Konpetentziak	Iraupena:	
	LHko 4. maila	DBHko 2. maila		LHko 4. maila	DBHko 2. maila
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i>	45'	55'	<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i>	45'	55'
Atsedeen laburra	5'		Atsedeen laburra	5'	
<i>Matematikarako kompetentzia</i>	45'	55'	<i>Zientziarako kompetentzia</i>	45'	55'
Atsedeen luzea edo jolas-ordua	25'		Atsedeen luzea edo jolas-ordua	25'	
<i>Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia</i>	35'	45'	Galdera-sorta	35'	
<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i>					
<i>Euskarazko edo gaztelaniazko idazmena</i>					
Guztira (atsedenak eta aurkezpenak barne)	2h 35'	3h 5'	Guztira (atsedenak eta aurkezpenak barne)	2h 35'	2h 55'


2. Zer populazio ebaluatu da?

Etapa erdiko Ebaluazio Diagnostikoa eroldaren arabera ebaluazioa da, eta bertan parte hartzen dute funts publikoak jasotzen dituzten titulartasun publikoko eta itunpeko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolatutako ikasle guztiak. Pandemia dela eta, ordea, ED21ean nahi izan duten ikastetxeek soilik hartu dute parte.


Jarraian datozen grafikoetan ikus daitezke ED19an eta ED21ean ebaluatutako ikastetxeak eta ikasleak.



2.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. Ebaluazio Diagnostikoetan parte hartutako ikastetxe eta ikasle kopuruaren bilakaera.



2.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. Ebaluazio Diagnostikoetan parte hartutako ikastetxe eta ikasle kopuruaren bilakaera.



EDren edizioetan ebaluatutako ikasle kopuruak gora egin du 2017kora arte. Urte horretan izan zen ikasle kopuru handiena ebaluatu zuen edizioa, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan. Dena den, 2017ko datuak 2009ekokin alderatuz gero, ebaluatutako populazioa murrizten hasi dela ikus daiteke (Lehen Hezkuntzako 4. mailan 406 ikasle gutxiago ebaluatu ziren, eta 800 ikasle gutxiago DBHko 2. mailan).

Salbuespenez ED21ean parte hartzea boluntarioa zenez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeen % 32,3k eta DBHkoen % 40,1ek erabaki dute ebaluazioan parte hartzea. Lagina populazioaren adierazgarri dela egiaztatuta da, eta beraz, datuak baliozkoak dira alderaketak egiteko.



Ebaluazio Diagnostikoaren Aginduak adierazten duen moduan, eta nazioarteko ebaluazioa guztietan ohikoa denez, ikasle batzuek (Curriculum Egokitzapen Indibidualizatu ofiziala dutenak edo euskal hezkuntza-sisteman eskolatuta urtebete baino gutxiago daramaten eta proben aplikazio-hizkuntza ezagutzen ez duten ikasle etorkinak) lortutako puntuazioa ez da aintzat hartu azken puntuazioak kalkulatzeko garaian.

Bestalde, ED19an eta ED21ean ikusmen urriko ikasleentzat proba espezifikoak egin da, eta bestelako hezkuntza-premia berezietako hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzat azterketa egingo da.

3. EMAITZA OROKORREN ETA ERRENDIMENDU MAILEN ARABERAKO BILAKAERA


Jarraian datozen grafikoetan Ebaluazio Diagnostikoen azken bi edizioetako informazioa dator, eta honako datu hauek ematen dituzte:

- Edizio bakoitzeko emaitza orokorra Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2.ean.
- Edizio bakoitzean hasierako mailan, erdi-mailan eta maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa.
- 2019ko eta 2021eko puntuazio orokorraren arteko aldearen adierazgarritasuna. Kasu honetan, goranzko geziak esan nahi du emaitza nabarmen hobea dela; beheranzko geziak esan nahi du emaitza nabarmen okerragoa dela, eta aldiz, aldea adierazgarria ez bada, berdin ikurra ageri da.



EMAITZAK

3.1. Matematikarako kompetentzia




Lehen Hezkuntzako 4. mailan *Matematikarako kompetentzia*n ED19tik ED21era puntuazio-igoera nabarmena ikus daiteke (+4,8 puntu). DBHko 2. mailan, aldiz, 2021eko puntuazioa nabarmen jaitsi da: aurreko edizioan baino 7 puntu gutxiago.

Bestalde, ED19an Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 80,1ek eta DBHko 2. mailako ikasleen % 80,9k gainditu zuten kompetentzia horretako hasierako errendimendu maila. ED21ean jaitsi egin da hasierako errendimendu mailan dagoen Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoa ED19koarekin alderatuta (ehuneko -7,3 puntu), baita errendimendu maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa ere (ehuneko -3,5 puntu). Aldiz, DBHko 2. mailan, bi edizioen artean, hasierako errendimendu mailan dagoen ikasleen ehunekoa igo egin da (ehuneko +2,7 puntu), eta Lehen Hezkuntzan bezala, murriztu egin da errendimendu

maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa (ehuneko -5,1 puntu).


LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

3.1.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. *Matematikarako kompetentziako* emaitza orokorren bilakaera.




DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA


3.1.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. *Matematikarako kompetentziako* emaitza orokorren bilakaera.




3.1.c. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. *Matematikarako kompetentziako* errendimendu mailetan ikasleen ehunekoetan izan den bilakaera.



3.1.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. *Matematikarako kompetentziako* errendimendu mailetan ikasleen ehunekoetan izan den bilakaera.



3.2. Zientziarako kompetentzia



ED21ean bi etapetan puntuazioek gora egin dute; Lehen Hezkuntzako 4. mailaren kasuan, 3 puntu igo da ED19arekiko, eta DBHko 2. mailaren kasuan, 2,2 puntu.


Hasierako errendimendu maila gairitu duen Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoa ugairu egin da ED19tik ED21era (% 84,5etik % 89,7ra). Hala ere, ehuneko hori murriztu egin da DBHko 2. mailan (% 87,1etik % 81,4ra).

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, hasierako errendimendu mailan dagoen ikasleen ehunekoa murriztu egin da azken bi ED edizioen artean (ehuneko -2,6 puntu) eta, aldiz, ugairu egin da maila aurreratuko ikasleen ehunekoa (ehuneko +7,9 puntu).

Bestalde, DBHko 2. mailan hasierako errendimendu mailan dauden nahiz errendimendu maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoak ugairu egin dira ED19 eta ED21 artean (ehuneko +6,7 eta +8,6 puntu, hurrenez hurren).


LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA


3.2.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. Zientziarako kompetentziako emaitza orokorren bilakaera.



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

3.2.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. Zientziarako kompetentziako emaitza orokorren bilakaera.





3.3. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.




Lehen Hezkuntzako 4. mailan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ED19arekiko ED21ean izandako 1,3 puntuko igoera ez da estatistikoki adierazgarria. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, ED21ean batez bestekoa nabarmen jaitsi da aurreko edizioarekiko (-6,7 puntu).

Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzak azken bi edizioetako joerari jarraitzen dio, emaitzen maila gero eta handiagoa izanik. Igoera horrek emaitzak orain arte lortutako altuenen artean kokatzen ditu, izan ere, ED2011koak dira, 256 punturekin.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan joera ez da berdina: emaitzak jaitsi egin dira. Ikasle hauek 2015ean eta 2017an Lehen Hezkuntzako 4. mailan ebaluazioa egin zutenean ere, emaitzen joera bera ikusi zen.


LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

3.3.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitza orokorren bilakaera.*



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

3.3.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera.*



3.4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia




Bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* puntuazioak nabarmen jaitsi dira ED19 eta ED21 artean. Puntuazio-jaitsiera handiagoa da Lehen Hezkuntzako 4. mailan (-13,2 puntu) DBHko 2. mailan baino (-6,7 puntu).

Bi mailetako joera antzekoa da. Hala ere, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, zenbait urte darama zentzu honetan; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, bi ikasturtetan baino ez da eman egoera hori, 20015eko eta 2017ko Ebaluazio Diagnostikoetan kohortearen joera berarekin bat baitatoz.


LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

3.4.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitza orokorren bilakaera.*



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

3.4.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitza orokorren bilakaera.*



3.5. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia




Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian derrigorrezko bi etapetako bakoitzean izandako joera desberdina izan da azken bi ED edizioen artean. ED21ean, Lehen Hezkuntzako 4. mailan igo egin da batez besteko puntuazioa 2019ko emaitzarekiko (+6 puntu). DBHko 2. mailan, aldiz, ia 5 puntu jaitsi da. Bai Lehen Hezkuntzako 4. mailako igoera, bai DBHko 2. mailako jaitsiera estatistikoki adierazgarriak dira.

Bi etapetan, ED19an eta ED21ean, ikasle gehienek gainditu dute hasierako maila (% 68,5 eta % 71,4 Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta % 78,9 eta % 74,3 DBHko 2. mailan). ED21 ED19ko datuekin alderatuko bagenu, ikus dezakegu hasierako mailan dagoen Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoa ehuneko 3 puntu jaitsi dela, eta aldiz, 4,6 igo dela DBHko 2. mailan. Kontrara, bi ebaluazioen


artean errendimendu maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa igo egin da Lehen Hezkuntzako 4. mailan (ehuneko +4,8 puntu) eta jaitsi egin da errendimendu maila hori duen DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa (ehuneko -1,4 puntu).

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

3.5.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren eta emaitza orokorren bilakaera.




3.5.c. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen ehunekoan izandako bilakaera errendimendu mailen arabera.




DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

3.5.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera.



3.5.c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen ehunekoan izandako bilakaera errendimendu mailen arabera.



3.6. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia




ED21ean *Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziako* puntuazioak behera egin du bi etapetan ED19ko datuekin alderatuta (ehuneko -3,8 eta -9,5 puntu, hurrenez hurren).

ED19an Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 76,2k gainditu zuten hasierako errendimendu maila, eta DBHko 2. mailako % 80k. Errendimendu maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa handiagoa da DBHko 2. mailan (% 35,2) Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino (% 16,3).

Bestalde, ED19arekin alderatuta, ED21ean igo egin da Lehen Hezkuntzako 4. mailan hasierako maila gainditu duen ikasleen ehunekoa (% 75,5) eta jaitsi egin da DBHko 2. mailako ikasleena (% 72,5). ED21ean puntuazioak igo egin du bi etapetan ED19ko datuekin alderatuta (ehuneko +0,7 eta +7,5 puntu, hurrenez hurren). Errendimendu maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa jaitsi egin da bi etapetan azken bi ED edizioen artean (ehuneko -4,3 eta -6,2 puntu, hurrenez hurren).


LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA



3.6.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. *Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziako* emaitza orokorren bilakaera.



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

3.6.b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. *Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziako* emaitza orokorren bilakaera.





4. EMAITZEN BILAKAERA, ZENBAIT ALDAGAIREN ARABERA

4.1. Emaitzen bilakaera, ikasleen adin-egokitasun egoeraren arabera

2019ko eta 2021eko edizioetan aurreko edizioetan bezalako joera ikusi da: adin-egokitasun egoeran dauden ikasleen emaitzak nabarmen altuagoak dira konpetentzia guztietan adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleenak baino.


DBHko 2. mailan bi ikasmilako atzerapena duen ikaslearen puntuazioak baxuagoak dira konpetentzia guztietan ikasmila bateko atzerapena duen

ikaslearenak baino, eta aldeak adierazgarriak dira, ED09an *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* izan ezik.

Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek soilik gaintitzen dute Euskadiko batezbestekoa konpetentzia guztietan eta hori Lehen Hezkuntzako 4. mailan nahiz DBHko 2. mailan gertatzen da.


LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

4.1.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitza orokorren bilakaera ikasleen adin-egokitasunaren eta Euskadiko batezbestekoaren arabera




DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

4.1.b. grafikoa.: DBHko 2. maila. ED19-ED21. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitza orokorren bilakaera ikasleen adin-egokitasunaren eta Euskadiko batezbestekoaren arabera.




LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA **DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA**

4.1.c. grafikoa: LHko 4. maila. ED19-ED21. *Matematikarako kompetentziako, Zientziarako kompetentziako eta Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziako* emaitza orokorren bilakaera ikasleen adin-egokitasunaren eta Euskadiko batezbestekoaren arabera.



4.1.d. grafikoa: DBHko 2. maila. ED19-ED21. *Matematikarako kompetentziako, Zientziarako kompetentziako eta Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziako* emaitza orokorren bilakaera ikasleen adin-egokitasunaren eta Euskadiko batezbestekoaren arabera.




4.2. Emaitzen bilakaera ikasleen sexuaren arabera

Neskek emaitza hobek dituzte mutilek baino *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia guztietan (euskara, gaztelania eta ingelesa), Zientziarako kompetentzian eta Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzian*. Lehen Hezkuntzako 4. mailan nahiz DBHko 2. mailan gertatzen da hori, aztertutako bi edizioetan. Salbuespen bakarra 2019an eta 2021ean gertatu da *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* Lehen Hezkuntzako 4. mailan; nesken aldeko aldeak ez baitira estatistikoki adierazgarriak.

Edonola ere, aztertutako bi ED edizioetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen artean *Matematikarako kompetentzian* mutilek emaitza hobek dituzte neskek baino.


LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

4.2.a. grafikoa.: LHko 4. maila. ED19-ED21. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera sexuaren arabera.




DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

4.2.b. grafikoa.: DBHko 2. maila. ED19-ED21. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera sexuaren arabera.




LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

4.2.c. grafikoa.: LHko 4. maila. ED19-ED21. Matematikarako kompetentziako, Zientziarako kompetentziako eta Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziako emaitzen bilakaera sexuaren arabera



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

4.2.d. grafikoa.: DBHko 2. maila. ED19-ED21. Matematikarako kompetentziako, Zientziarako kompetentziako eta Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentziako emaitzen bilakaera sexuaren arabera.



4.3. COVID efektuaren eragina

Covid-ek 2020ko martxoan sortutako osasun-larrialdiko egoera erronka izan zen gure gizartearentzat oro har, eta hezkuntza-sistemarentzat bereziki. Etxean konfinatzeko beharrak eta ondoren abian jarritako osasun-neurriek irakasleak eta ikasleak ikasturtea jarraitzera behartu zituzten aurrekaririk gabeko irakatsi eta ikasteko prozesu baten bidez. Orain arte egindako ikerketa urriek adierazten dute pandemiak gure gazteen ongizate emozionalari eragin diola. Era berean, ondorio horiek horien errendimendu akademikoan ere eragina izatea espero da.

Hori dela eta, EDko galdera-sortan honen inguruko zenbait galdera sartzeko aprobetxatu nahi izan da, ikasleek Covid-aren eraginari buruz duten pertzepzioa ezagutzeko. Ikasleei errendimenduan eragin diezaieketen funtsezko hiru alderditan bildu dira galderak: alderdi emozionalak, pertsonen artekoak harremanei loturikoak eta alderdi akademikoak.

Lortutako emaitzak bat datoz gaur egun argitaratutako datuekin, eta gazte gehien artean erreakzio emozional negatiboak areagotu egin direla islatzen dute, hala nola gogorik eza edo suminkortasuna. Jasotako erantzunen arabera, bigarren hezkuntzako ikasleen % 37k antsietate edota estres handiagoa dute pandemiaren ondorioz, eta % 22 janarian babestu dira horri aurre egiteko; lehen hezkuntzako ikasleen artean, bi kasuetan ikasleen % 34 dira.

Ikasleak besteekin harremanetan jartzeko moduari dagokionez, familiarekin duten harremanari, ikaskideei eta ikasgelan duten portaerari buruzko galderei erantzun diete. Bigarren hezkuntzan zein lehen hezkuntzan, ikasleen % 10-15ek adierazi du harremanak okertu egin direla.

Azkenik, bigarren hezkuntzako ikasleen % 34k aitortzen du maila akademikoa galdu duela bizi izandako egoeraren ondorioz, eta % 32

ikasketei aurre egiteko motibazio txikiagoarekin sentitzen da. Lehen hezkuntzan, emaitza horiek % 23ra eta % 24ra jaisten dira, hurrenez hurren.

Ikasleen galdera-sortatik lortutako erantzunen bidez, indize bat sortu da, eta horri Covid Efektua deitu zaio. Indize horrek aukera ematen du norbanako bakoitzari, bere erantzunen arabera, Covid-efektu maila bat esleitzeko. Jarraian, ikasleria indize horren arabera kuartiletan banatu da, Covid efektu-mailatan sailkatzeko, eta ikasleak maila altutik baxura doazen taldetan multzokatu dira. Sailkapen horren arabera, zenbat eta handiagoa izan Covid efektua, orduan eta eragin negatiboagoa izan du egoerak ikasleengan.


Sailkapen honen helburua da talde bakoitzak ED-an kompetentzia bakoitzean lortutako emaitzak alderatu ahal izatea, egoerak ikasleen errendimendu akademikoan benetan eraginik izan duen ondorioztatu ahal izateko.

Ikus daitekeenez, Covid efektua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da kompetentzia bakoitzean lortutako emaitza. Gainera, eragina oso antzekoa da guztietan: Lehen Hezkuntzan, batez beste, 38 puntuko aldea dago Covid efektuaren maila altuaren eta baxuaren artean, eta 23 puntukoa Bigarren Hezkuntzan.


LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

4.3.a. grafikoa.: LHko 4. maila. ED21. Konpetentzietako emaitzak Covid efektu-mailaren arabera.



4.3.b. grafikoa.: DBHko 2. maila. ED21. Konpetentzietako emaitzak Covid efektu-mailaren arabera.



Grafikoei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu Lehen Hezkuntzan bereziki nabarmena dela emaitzetan Covid efektu handiena izan dutenen arteko aldea, ia 20 puntuko aldea baitago horien eta hurrengo mailaren artean; gainerakoetan, berriz, taldeen arteko aldeak murriztu egiten dira.

Bigarren hezkuntzan, ordea, Covid efektuaren mailen banaketa antzekoa da, eta 8 puntu inguruko aldea dago maila batetik bestera. Salbuespen gisa, ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzian ez dago alde handirik

emaitzetan Covid efektu txikieneko mailetan, baina maila handieneko taldea hurrengotik 25 puntu aldentzen da.

Horrekin guztiarekin, esan daiteke, nahiz eta errendimendu akademikoa aldagai askok baldintzatutako faktorea izan, Covid19ak sortutako pandemiak nolabaiteko eragina izan duela EAEko ikasleengan.

5. IRUDIEN ERREFERENTZIAK



<https://www.bancodeimagenesgratis.com/2018/11/calendarios-2019-en-espanol-con-todos.html>



<https://g-se.com/sarcopenia-en-tiempos-de-covid19-fabricando-medicamentos-y-des-fabricando-musculo-historica-tragedia-bp-i60734a4987415>



<https://www.freelogoservices.com/blog/es/2019/06/20/cuestionario-de-marca/>



<https://universoabierto.org/2018/09/21/como-usan-las-los-ordenadores-los-estudiantes-para-aprender-en-el-hogar-y-la-escuela/>



<https://www.lifeder.com/para-que-sirven-matematicas/>



<https://rmartinezrivadeneira.wordpress.com/2016/09/09/preservar-el-lenguaje-euskara-por-medio-del-balanced-scorecard/>



<https://ihtravel.mx/el-2018-es-tu-ano-para-aprender-ingles/>



<https://app.emaze.com/@AZCOWWIZ#1>



<https://www.lanacion.com.ar/lifestyle/que-es-calendario-gregoriano-nid2515776/>



<https://www.slideshare.net/xtianmar1/folleto-pisa2015-47152800>



<https://www.mimundogadget.com/p/gracias-la-gran-oferta-de-ordenadores.html?m=1>



<https://www.ugtcomunicaciones.es/wordpress/resultado-elecciones-16-de-mayo/>



<https://cursos.gamemath.ec/enrol/index.php?id=32>



<https://castellanotrafalgar.blogspot.com/2017/09/bienvenidos-alumnos-y-queridos-alumnos.html>



<https://www.agustimestre.com/es/quercetti-kaleido-gears-55p.html>